



DBH2



FITXA TEKNIKOA

AUTOREA: Koldo Izagirre

IZENBURUA: *Dumitru*

ARGITALTOKIA, ARGITALETXEA, URTEA: Donostia, Erein, 2014

ORRIALDE KOPURUA: 73

BILDUMA: Perzebal, 29

ISBN: 9788497469326

ADIN TARTEA

14 urtetik aurrera

IRUZKINA

Eleberri laburtzat jo daitekeen obra honek protagonista ugari ditu, eta guztien artean euskal gizartearen erretratu soziala eskaintzeko ahalegina egiten du. Izenburuak jatorri errumaniarreko Dumitru nerabea nabarmentzen du, pertsonaia honen inguruan eraikitzen delako trama nagusia. Dumitruk bidegabeki atxilotzen dutela salatzen duenean abiatzen da kontaketa, baina jarraian agertzen dira bere aita Cosmin, kaleko musika jotzailea, Olatz Dumitruen laguna, Marta, lan gatazkatan dabilen Olatzen ama, eta Felisa, zahartzaroaren ajeak erretratatzan dituen Martaren ama.

Bost pertsonaia hauek gizarte antolaketari egiten diote kritika, bakoitza bere egunerokotik abiatuta: migrazioak, aberastasun banaketa, eta langileen lan baldintzak. Gainerako pertsonaiek, Mohamed fruta saltzaileak, Dumitruen gelakideek, Ertzainek, eta kaleko zenbait andrek, kontrapuntua jartzen diete protagonisten esanei.

IKASLEEKIN LANDU DAITEZKEEN GAI PEDAGOGIKOAK

1. Gizarteko mugetan bizi diren pertsonak.

α. Klase sozialak (Wikipedian azalpen zabalak daude, ingelesez eta gaztelaniaz euskaraz baino txukunago)



- β. Existitzen al dira gaur egun?
- γ. Zeintzuk dira?
- δ. Zeren arabera bereizten dira?
- ε. Migrazioak: Immigrazioa eta emigrazioa, atzerritarrak gurean, gu atzerrian.
- σ. Zerrendatu zure familiako migrazioak, hiru belaunaldietan, gutxienez.
- ζ. Nork noiz eta nola du zilegi migrazioa?

2. Langileak, soldatapekoak.

- α. Langileen estatutua.
- β. Galdetu lanean aritzeko adinean dauden bost laguni ea inoiz irakurri duten Langileen estatutua, zati bat gutxienez.
- γ. Galdetu lanean aritzeko adinean dauden bost laguni euren eskubideetako batzuk eta betebeharrak batzuk esateko.
- δ. Zeintzuk dira zure ustez langile baten oinarrizko hamar eskubide eta hamar betebeharrak?
- ε. Lan prekarioa nork eta zergatik egiten du? Nola konponduko zenuke arazoa? Bideragarria al da zure proposamena?

3. Nobela grafiko baten irakurketa:

- α. *Emigrantes* / Shaun Tan. Barbara Fiore, 2007
- β. Testurik gabeko narrazio irudidun honek migrazioen inguruko hausnarketa proposatzen du, familia baten esperientziatik abiatuta.
- γ. Dumitruren eta *Emigrantes* narrazioak erkatzea gaiari buruzko ikusmolde pertsonalak, partaide bakoitzarenak, plazaratzeko balio lezake.